Agindu hori garatzeko, Nafarroako Kontseiluaren Antolaketa eta Funtzionamendurako Erregelamenduak, otsailaren 28ko 90/2000 Foru Dekretuaren bidez onetsitakoak, 38.2 artikuluan xedatzen du kontseiluko buruak urteko memoria egin, eta Osoko Bilkurari aurkeztuko diola, onetsi dezan.

Erregelamendu horren 12.2.f) artikulua ezartzen duenez, berriz, Nafarroako Kontseiluko kide-idazkariak prestatuko du Kontseiluaren jardun memoriaren proiektua.

Aipatutako lanak egin ondoren, Nafarroako Kontseiluak, 2020ko otsailaren 24an egindako bilkuran, 2019. urteko memoria onetsi zuen, ondotik azaltzen den moduan.





ALDERDI OROKORRAK

1.

NAFARROAKO KONTSEILUAREN SORRERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA.

Nafarroako Kontseilua Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legearen bidez sortu zen (urte bereko 37. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, martxoaren 26koa). Foru lege horrek 1999ko urriaren 1ean hartu zuen indarra, eta abenduaren 10eko 25/2001 Foru Legeak eta Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen azken xedapenetako bigarrenak aldatu zuten.

Nafarroako Kontseiluari buruzko ekainaren 9ko 8/2016 Foru Legeak, ekainaren 15ean indarra hartu zuenak, indarrrik gabe utzi zuen martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legea eta, Nafarroako Kontseilua eguneratzearen, araudi berria eman zion. Araudi horren bidez, haren kideen kopurua murriztu zen, eta aldatu ziren bai kideak hautatzeko era bai Kontseiluko kideen, kide-idazkariaren nahiz buruaren agintaldiak duen iraupena; halaber, haren irizpenek -ordenamendu juridikoa betetzen dela zaintzeaz gain- abaguneari eta komenigarritasunari buruzko balorazioak eduki ditzakete, gaiaren izaeragatik edo kontsulta egin duen agintariak berariaz eskatu duelako, eta, orobat, Administrazioak bere helburuak eraginkortasun handiagoz betetzeko bada.

Aipatutako legeez gain, Kontseilua bere erregelamenduaren bidez arautzen da: Nafarroako Kontseiluaren Antolaketa eta Funtzionamendurako Erregelamendua, otsailaren 28ko 90/2000 Foru Dekretuak onetsia eta ekainaren 12ko 205/2000 Foru Dekretuak eta urtarrilaren 21eko 15/2002 Foru Dekretuak aldatua, aldatzen duena otsailaren 28ko 90/2000 Foru Dekretuak onetsi zuen Nafarroako Kontseiluaren Antolaketa eta Funtzionamendurako Erregelamendua.

Nafarroako Kontseiluaren Antolaketa eta Funtzionamendurako Erregelamendua onesten duen otsailaren 28ko 90/2000 Foru Dekretuaren 4.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Kontseiluaren irizpenaren xede izandako gaitan ez du txosten juridikoa ematen ahalko Nafarroako Foru Komunitateko edo beste Administrazio Publiko bateko organo edo erakunde batek, ezta Estatuko Kontseiluak ere.

2.

NAFARROAKO KONTSEILUAREN OSAERA ETA IZAERA.

Nafarroako Kontseilua Nafarroako Foru Komunitateko kontsulta organo gorena da. Bere eginkizunak betetzean, Nafarroako Kontseiluak Espainiako Konstituzioa, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa eta gainerako ordenamendu juridikoa betetzen dela begiratu du. Kontseiluaren irizpenek abagunearen eta komenigarritasunaren gaineko balorazioak izaten ahal dituzte, gaiaren izaerak horretara behartzen duenean edo kontsulta egin duen agintariak berariaz eskatzen duenean, zein Administrazioak eraginkortasun handiagoa behar duenean bere helburuak betetzeko. Era berean, Nafarroako Kontseiluak bere eginkizunak aurrera eramateko autonomia organiko eta funtzionala izanen du, bere objektibotasuna eta independentzia bermatuko badira.

Nafarroako Kontseilua bost kidek osatuko dute. Nafarroako Parlamentuak proposaturik eta gehiengo osoz hautaturik, Nafarroako Gobernuak lehendakariak izendatuko ditu kide horiek, entzute handia, gutxienez ere 15 urteko lanbide esperientzia eta nafartasun politikoa duten legelarien artean. Honako hauek proposatzen ahalko dituzte postu hutsak betetzeko izangaia: a) Parlamentu-talde batek edo batzuek. b) Nafarroako abokatu-elkargoek edo, kasua bada, Nafarroako Abokatu Elkargoen Kontseiluak. c) Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gobernu Kontseiluak.

3.

NAFARROAKO KONTSEILUAREN EGUNGO OSAERA.

Ekainaren 9ko 8/2016 Foru Legearen 6. artikuluan ezarritakoaren arabera, Nafarroako Kontseiluak Osoko Bilkuran jardunen du.

2018ko abenduaren 31n honako hau zen Nafarroako Kontseiluaren osaera:

Lehendakaria:

Alfredo Irujo Andueza jaun txit garaia

Kontseilukide-idazkaria:

Socorro Sotés Ruiz andre txit prestua

Kontseilukideak:

M^a Ángeles Egusquiza Balmaseda andre txit prestua

José Luis Goñi Sein jaun txit prestua

José Iruretagoyena Aldaz jauna

4.

NAFARROAKO KONTSEILUAREN EGOITZA.

Nafarroako Kontseilua sortu zuen Foru Legearen 1.3 artikulua arabera, erakundeak Iruñean du bere egoitza.

2003ko ekainaren 2az geroztik, egoitza Iruñeko Emilio Arrieta kaleko 8an du, seigarren solairuan.

5.

NAFARROAKO KONTSEILUKO PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANGILEAK.

Nafarroako Kontseiluak, sortu zuen foru legeak aitortzen dion autonomia organikoaz eta funtzionalaz baliatuz, 2019ko irailaren 23an egindako bikuran hartutako erabakiaren bidez onetsi zuen bere plantilla organikoa, lanpostu hauek osatua: legelari bat (funtzionarioa) eta Kontseiluko buruaren idazkaria (behin-behinekoa). Erabaki hori 2019ko 209. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, urriaren 22an, onetsitako eduki eta xehetasunekin (argitalpenean daude jasota).

2019an, Kontseiluko legelaria José Ignacio Labé Valenzuela jauna da, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako funtzionarioa, eta Kontseiluko buruaren idazkaria, berriz, Mónica Muñoz Fernández andrea.

6.

AURREKONTUA.

Nafarroako Kontseiluaren aurrekontua, Nafarroako Aurrekontu Orokorretako C00000 programan jasota dagoena, 446.324,00 eurokoa izan da 2019ko ekitaldian, honela banatuta:

1. kapitulua	(Langileen gastuak)	201.818,00 euro.
2. kapitulua	(Ondasun arruntak eta zerbitzuak)	220.370,00 euro.
6. kapitulua	(Inbertsio errealak)	28.000,00 euro.
Osotara		450.188,00 euro

2019ko aurrekontu ekitaldia amaitu eta itxi ondoren, Nafarroako Kontseiluaren aurrekontu gauzatua honako hau da:

1. kapitulua	(Langileen gastuak)	151.088,62 euro
2. kapitulua	(Ondasun arruntak eta zerbitzuak)	144.186,30 euro
6. kapitulua	(Inbertsio errealak)	0,00 euro
Osotara		295.274,92 euro

2. kapituluko aurrekontuaren betearazpena txikiagoa izatearen arrazoia da, hein handi batean, Nafarroako Kontseiluak ez diela azterlan eta lan teknikorik eskatu kanpoko adituei, eta 2010ean hasitako aurrezpen politikarekin jarraitu duela.

2020ko ekitaldirako, Nafarroako Kontseiluaren aurrekontua, Kontseiluak berak proposaturik, Nafarroako Parlamentuak onetsitako 2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorren Aurreproiektuko C00000 programan sartu zen, honela banatuta:

1. kapitulua	(Langileen gastuak)	205.012,00 euro.
2. kapitulua	(Ondasun arruntak eta zerbitzuak)	220.370,00 euro.
6. kapitulua	(Inbertsio errealak)	28.000,00 euro.
	Osotara	453.382,00 euro

7.

WEBGUNEAK.

Nafarroako Kontseiluak, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien garrantziaz jabeturik, bere webgunea sortu zuen 2001ean.

2006an, www.consejodenavarra.es webgunearen orriak diseinatu eta berrikusi ziren 'Web Content Accessibility Guidelines 1.0' (Web 1.0 edukiaren eskuragarritasunerako jarraibideak) izeneko agirian zehaztutako jarraibideen arabera; jarraibideak W3C-ko WAI lantaldeak eginak dira, eta bat datoz Informazioaren Gizartearen eta Merkataritza Elektronikoen Zerbitzuei buruzko uztailaren 11ko 34/2002 Legean ezarritakoarekin.

Web diseinu eskuragarriari esker, desgaitasun fisikoak, zentzumenezkoak edo kognitiboak direla eta saretik bazterturik egon ohi diren pertsonak, edo lan ingurunearekin edo oztopo teknologikoekin lotutako mugak dituztenek, webgune bateko edukiak eta zerbitzuak eskura izan ditzakete.

Webgunearen programazio eskuragarriak zerbitzuak eta edukiak plataforma askotatik eskura ditzaketen erabiltzaileen kopurua handitzen du, gunearen ikusgarritasuna hobetzen du bilatzaileetan, eta faktore horiek trafikoa areagotzea dakarte.

Nafarroako Kontseiluaren webgune berria eraiki da. Webgune berria Nafarroako Gobernuaren Liferay DXP plataforma berrian hedatu ahal izanen da, Nafarroako Gobernuko Informatikaren, Telekomunikazioen eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusiarekin lankidetzan.

Nafarroako Kontseiluaren webgunera klikatuta ere sartzen ahal da: 'www.cfnavarra.es/consejonavarra'.

8.

IRIZPENEN EDIZIOA.

2019an, Nafarroako Kontseiluak 2018ko irizpenak editatu eta argitaratu zituen, e-book euskarrian, baita 2000-2018 urteetako irizpen bilduma ere, usb euskarrian.

9.

JARDUN INSTITUZIONALA.

Kontseiluko buruak Nafarroako Kontseilua ordezkatu zuen ekitaldi hauetan:

- Otsailaren 6an, Desgaitasunerako Eskubiderako II. Biltzar Nazionala irekitzeko ekitaldian.
- Otsailaren 20an Nafarroako Unibertsitatean egindako ekitaldi akademikoan, San Raimundo Peñafortekoaren bestaren kariatara.
- Otsailaren 23an, Nafarroako Foruzaingoaren bestaren kariatara.
- Maiatzaren 3an, Nafarroako Unibertsitatean egindako ekitaldi akademikoan, San Raimundo Peñafortekoaren bestaren kariatara.
- Maiatzaren 4an, Kulturaren “Vianako Printzea” 2019ko saria emateko ekitaldian. Nafarroako Gobernuak Tomás Yerro Villanueva idazle eta irakasleari eman zion saria, Nafarroako Kultura Kontseiluak proposaturik.
- Maiatzaren 7an, “Berunezko urteak: 40 urte geroagoko atzerako begirako ikuspegiaz” izeneko informazio-gosarian. Guardia Zibileko José Santiago Martín Gómez koronel buruak antolatua.
- Ekainaren 14an, Ramón Gonzalo Garcíak Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektore gorenaren kargua hartzeko ekitaldian.
- Ekainaren 19an, Nafarroako Parlamentua eratzeko bilkuran (X. legealdia).

ALDERDI OROKORRAK

- Ekainaren 28an, Nafarroako Unibertsitatean, Honoris Causa doktore gradua hartzeko ekitaldian.
- Abuztuaren 6an, Nafarroako Foru Komunitateko lehendakariaren kargu hartzean.
- Abuztuaren 7an, Nafarroako Gobernuako kontseilarien kargu hartzean.
- Irailaren 6an, Nafarroako Unibertsitatean 2019-2020 ikasturteari hasiera emateko ekitaldian.
- Irailaren 13an, Nafarroako Unibertsitate Publikoan, 2019-2020 ikasturteari hasiera emateko ekitaldian.
- Irailaren 20an, 2019-2020 urte judizialari hasiera emateko ekitaldian.
- Urriaren 12an, Guardia Zibilak Pilareko Ama Birjinaren festa dela-eta egindako ekitaldietan.
- Azaroaren 6an, Elkartasunari emandako "Nafarroa" Nazioarteko XVII. Saria emateko ekitaldian.
- Azaroaren 28an, Nafarroako Komandantzia Militarren Unitatearen eguneko ekitaldian.
- Abenduaren 3an, Foru Komunitateko agintari eta ordezkariak egindako harrera ofizialean, Nafarroaren Egunaren kariatara.
- Abenduaren 5ean, Espainiako Konstituzioaren Eguna gogoratzeko eta "Meritu zibilari" eta "Isabel Katolikoa"ri emandako dominak emateko ekitaldian.
- Abenduaren 15ean eta 16an, Iruñeko Abokatuen Elkargoak egindako ekitaldietan, bere zaindariaren eguna ospatzeko.





KONTSULTA LANA

1.

IRIZPEN ESKAEREN KOPURUA.

2019an, berrogeita hamasei irizpen eskaera sartu ziren Nafarroako Kontseiluan.



2.

DOKUMENTAZIOA.

Irizpen eskaera horietatik hamabostetan espedientea osatu gabe zegoenez, beharrezkoa zen dokumentazioa osatzeko eskatu zen, eta irizpena emateko epea eten egin zen.



3.

EMANDAKO IRIZPENAK.

Nafarroako Kontseiluak berrogeita hamalau irizpen eman zituen 2019an. Horietako bost 2018an egindako eskaerei dagozkie, eta gainerako berrogeita bederatzi irizpenak 2019an egindako kontsultei.

Hortaz, berrogeita hamasei eskaera onartu ziren, eta horietatik berrogeita bederatzi kasutan eman zen irizpena. 2019ko abenduaren 31n, bost espediente zeuden irizpen zain, eta horietatik lau 2019ko abenduaren 11tik aitzina sartu ziren.


Emandako irizpenak hauek izan dira, izaeraren arabera sailkatuta:

Fakultatiboak	5
Aginduzkoak	49

Emandako irizpenak irizpide hauen arabera sailkatu daitezke:

a) Organo eskatzailearen arabera:

Bidaltzailea	Zenbakia
Nafarroako Gobernuko lehendakaria	49
Nafarroako Parlamentuko lehendakaria	5




- Nafarroako Gobernuko lehendakaria
- Nafarroako Parlamentuko lehendakaria

Nafarroako Gobernuko lehendakariak igorritako eskaeretatik bederatzi toki entitateek egindako kontsultei dagozkie eta bat Nafarroako Unibertsitate Publikoak egindakoari, Nafarroako Kontseiluari buruzko Foru Legearen 19.3 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

b) Jatorriaren arabera:


Nondik etorriak	Kopurua
Nafarroako Gobernua	38
Nafarroako Parlamentua	5
Toki entitateak	10
Beste erakunde batzuk	1



- Toki entitateak
- Beste erakunde batzuk
- Nafarroako Parlamentua
- Nafarroako Gobernua

Nafarroako Gobernua, departamentuz departamentu:	Kopurua
Garapen Ekonomikorako Lehendakariordetza	1

Eskubide Sozialetako Lehendakariordetza	2
Eskubide Sozialetako Departamentua	1
Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentua	7
Ekonomia eta Ogasun Departamentua	1
Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua	5
Hezkuntza Departamentua	1
Osasun Departamentua	8
Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentua	10
Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua	2
GUZTIRA	38



c) Irizpenak, gaien arabera:

Gaiak	Kopurua
Konstituzio kontraktasuneko errekurtsioak	0
Estatuko oinarritzko legedia garatzeko edo Europako erkidegoko zuzenbidearen transposizioa egiteko eman beharreko foru legeetarako aurreproiektuak egitea.	
<i>Irizpen zenbakiak: 9, 11</i>	2

Legegintzako foru dekretuen proiektuak.	0
Legeak betearazteko ematen diren erregelamenduen edo xedapen orokorren proiektuak, eta haien aldaketak. <i>Irizpen zenbakiak: 1, 3, 5, 6, 7, 10, 13, 15, 22, 25, 28, 33, 38, 43, 49</i>	15
Berrikusteko administrazio errekurtsuak <i>Irizpenak: 31, 34, 37</i>	3
300.000,00 eurotik gorako kalte-ordainen eskaerak, kalte eta galerengatik <i>Irizpen zenbakiak: 2, 12, 14, 16, 21, 40, 41, 44</i>	8
Udal mugapeak aldatzeko espedienteak <i>Irizpen zenbakiak: 32, 35, 36</i>	3
Administrazio egintzen ofiziozko berrikuspena <i>Irizpen zenbakiak: 4, 18, 19, 20, 29, 39, 42, 45, 47, 48, 51, 54</i>	12
Administrazio hitzarmen eta kontratuen interpretazioa, balio gabetasuna eta suntsiarazpena, kontratistak aurka egiten duenean. <i>Irizpen zenbakiak: 27, 30, 46, 50, 52, 53</i>	6
Bestelako gaiak <i>Irizpen zenbakiak: 8, 17, 23, 24, 26</i>	5


GUZTIRA **54**



Konparazio azterlana, gaien arabera: 2011-2019 urteak

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2011-2019
FEBHL oren ERREFORMA	0	0	0	0	0	0	0		0	0
Estatuko oinarrizko legedia garatzeko edo Europako Erkidegoko zuzenbidearen transposizioa egiteko eman beharreko foru legeen aurreproiektuak							1	1	2	4
Legegintzako foru dekretuen proiektuak	0	0	0	0	0	0	1	0	0	1
Konstituzio kontrakotasuneko errekurtsioak	0	5	2	2	0	0	0	0	0	9
Hitzarmen Ekonomikoaren Erregelamendua	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Lankidetza hitzarmenak eta akordioak	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Legeak betearazteko erregelamenduak	24	18	23	20	13	10	15	12	15	152
Transakzio judizialak edo judizioz kanpokoak	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Berrikusteko administrazio errekurtsioak	3	1	1	1	2	10	11	4	3	34
Administrazioaren ondare erantzukizuna	8	10	7	8	11	22	15	7	8	96
Administrazio egintzen ofiziozko berrikuspena	7	12	5	3	8	8	5	12	12	72
Udal mugapeen aldatetari buruzko espedienteak	1	0	0	1	0	0	0	0	3	5
Administrazio kontratuak.	0	3	2	2	0	2	1	1	6	17
Bestelako gaiak	1	0	5	2	2	4	4	3	5	26
	44	49	45	39	36	56	53	40	54	416

Konparazio azterlana, gaien arabera: 2011-2019 urteak



4.

PRESAKO IZAERAZ EMANDAKO IRIZPENAK.

Presako izaeraz sei irizpen eman dira.



5.

IRIZPENAREN XEDE IZANDAKO GAIEI BURUZKO ERABAKIAK.

Nafarroako Kontseiluak, 2019ko abenduaren 31 arte, kontsulta eta irizpenaren xede izandako espedienteei buruzko 25 xedapen eta ebazpen administratiboren berri izan du, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zitrelako edo Kontseiluari jakinarazi zitzaizkiolako Nafarroako Kontseiluaren Antolaketa eta Funtzionamendurako Erregelamenduaren 36. artikuluan xedatutakoari jarraikiz. Nafarroako Kontseiluaren Antolaketa eta Funtzionamendurako Erregelamenduaren 4.4 artikuluan ezarrita dagoenez, Nafarroako Kontseiluaren txostena jaso duten gaiei buruzko xedapen eta ebazpen administratiboetan adieraziko da horiek Kontseiluak emandako irizpenarekin bat datozen edo ez.

Urte honetan ikusi denez, erregelamenduzko xedapenetan ohiko bihurtu da “Nafarroako Kontseiluarekin bat” dioen formula erabiltzea.

Esan beharra dago hartutako administrazio ebazpen eta xedapen gehienetan jaso egin direla Nafarroako Kontseiluak bere irizpenetan egindako ohartarazpenak.



6.

NAFARROAKO KONTSEILUAREN BILKURAK.

Nafarroako Kontseiluak 20 bilkura egin ditu 2018an.



7.

IRIZPENEN ZENBAKIZKO AURKIBIDEA.

Irizpena: 1/2019, urtarrilaren 21ekoa

Foru Dekretuaren proiektua, kanpoko desfibriladore automatizatuen instalazioa eta horiek erabiltzeko prestakuntza arautzen duena.

Irizpena: 2/2019, urtarrilaren 21ekoa

Kalte-ordainen eskaera, osasun zerbitzuen funtzionamenduak eragindako kalte eta galerengatik.

Irizpena: 3/2019, urtarrilaren 21ekoa

Foru Dekretuaren proiektua, 132/2005 Foru Dekretua aldatzen duena. Foru dekretu horren bidez Basozainen berariazko araubidea erregulatzen da.

Irizpena: 4/2019, otsailaren 18koa

Ofizios berrikustea eta deusez deklaratzeari Cascanteko Udalak obra lizentzia emateko egindako Ebazpena, 2015eko maiatzaren 14koa.

Irizpena: 5/2019, otsailaren 18koa

Foru Dekretuaren proiektua, 112 SOS Nafarroa Larrialdia Kudeatzeko Zentroa arautzen duena.

Irizpena: 6/2019, otsailaren 18koa

Foru Dekretuaren proiektua, azaroaren 6ko 215/1985 Foru Dekretua aldatzen duena. Foru dekretu horren bidez, Nafarroako Administrazio Publikoetako lanpostuak betetzeko Erregelamendua onetsi zen.

Irizpena: 7/2019, otsailaren 18koa

Foru Dekretuaren proiektua, uztailaren 17ko 50/2006 Foru Dekretua aldatzen duena. Foru dekretu horren bidez, Nafarroako Zerga Ogasunaren esparruan bide elektroniko, informatiko eta telematikoen erabilera arautzen da.

Irizpena: 8/2019, otsailaren 20koa

Foru Legearen proposamena, Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkoa.

Irizpena: 9/2019, martxoaren 5koa

Foru Legearen aurreproiektua, Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legea aldatzen duena.

Irizpena: 10/2019, martxoaren 11koa

Foru Dekretuaren proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko abeltzaintzako ustategiek eta beren instalazioek bete beharreko higiene eta osasun baldintzak eta animalien ongizatearen eta antolamendu zooteknikoaren baldintzak ezartzen dituena.

Irizpena: 11/2019, martxoaren 11koa

Foru Legearen aurreproiektua, ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituena.

Irizpena: 12/2019, martxoaren 11koa

Nafarroako Foru Administrazioaren ondare erantzukizuna osasun laguntzagaritik.

Irizpena: 13/2019, martxoaren 11koa

Foru Dekretuaren proiektua, ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretua aldatzen duena. Foru dekretu horren bidez, Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroa onesten da.

Irizpena: 14/2019, martxoaren 11koa

Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa.

Irizpena: 15/2019, martxoaren 15koa

Foru Dekretuaren proiektua, Nafarroako Higiezin Agenteen Erregistroa sortzen duena.

Irizpena: 16/2019, martxoaren 15koa

Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa.

Irizpena: 17/2019, martxoaren 15koa

Indarreko legediari egokitzea Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko Foru Legearen proiektuaren edukiak.

Irizpena: 18/2019, apirilaren 8koa

Berrikustea, erabateko deuseztasunagatik, Diru-bilketa Zerbitzuko zuzendariaren maiatzaren 29ko 65/2015 Ebazpena.

Irizpena: 19/2019, apirilaren 29koa

BEZaren itzulketaren berri emateko egintza erabat deusezaren berrikuspena.

Irizpena: 20/2019, apirilaren 29koa

UE2bis unitatea behin betiko likidatzeko Untzueko Alkatetzak urriaren 9an eman 1/2008 Ebazpenaren ofiziozko berrikuspena.

Irizpena: 21/2019, apirilaren 29koa

Kalte-ordainen eskaera, osasun zerbitzuen funtzionamenduak eragindako kalte eta galerengatik.

Irizpena: 22/2019, apirilaren 29koa

Nafarroan parke eolikoetarako baimena arautzen duen foru dekretuaren proiektua.

Irizpena: 23/2019, maiatzaren 20koa

21/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioa edo Foru Berria aldatu eta eguneratzeko.

Irizpena: 24/2019, ekainaren 4koa

Foru Legearen proposamena, aldaketa egiteko Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren gainean 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsiriko testu bateginean.

Irizpena: 25/2019, ekainaren 4koa

Kontratazio Publikorako Batzordea arautzen duen Foru Dekretuaren proiektua.

Irizpena: 26/2019, ekainaren 10ekoa

Administrazio klausula partikularren agiria, Nafarroako Estatistika Institutuak onetsia, bizi baldintzei buruzko 2018ko inkesta soziala kontratazio-rako prozedura irekiaren bidez adjudikatzeko.

Irizpena: 27/2019, ekainaren 10ekoa

Ardoi Iparrean kirolerako eta bizi sozialerako eraikinaren obra kontratuaren erruzko suntsiarazpena.

Irizpena: 28/2019, ekainaren 10ekoa

Foru dekretuaren proiektua, aldaketa egiteko Balio erantsiaren gaineko zergaren Erregelamenduan, Fakturazio betebeharrak arautzen dituen Erregelamenduan, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Erregelamenduan, Sozietateen gaineko zergaren Erregelamenduan eta IFZren eta horri lotutako errolda zehatz batzuen arauketan.

Irizpena: 29/2019, uztailaren 3koa

Ofiziozko berrikuspena, Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak ehiza-barruti pribatua eratzeari buruz emandako ebazpenarena.

Irizpena: 30/2019, uztailaren 3koa

Obra kontratuaren erruzko suntsiarazpena.

Irizpena: 31/2019, uztailaren 3koa

Berrikuspeneko errekurtsio berezia, Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariaren urtarilaren 24ko 8E/2018 Foru Aginduaren aurkakoa.

Irizpena: 32/2019, uztailaren 3koa

Foru Dekretuaren proiektua, Caparrosoko eta Martzillako udal mugarteak aldatzeko espedientea ebazten duena.

Irizpena: 33/2019, uztailaren 29koa

Foru Dekretuaren proiektua, Nafarroako Planeamenduaren Erregistroa eta Nafarroako hirigintza eta lurralde plangintzarako tresnen aurkezpenaren formatua arautzen dituen.

Irizpena: 34/2019, uztailaren 29koa

Berrikuspeneko errekurtsio berezia, Kontratuaren amaieraren komunikazioaren kontrako errekurtsioa ezesteko Foru Aginduaren aurkakoa.

Irizpena: 35/2019, uztailaren 29koa

Proiektua, Funesko eta Alesbesko mugarteak aldatzeko.

Irizpena: 36/2019, uztailaren 29koa

Foru Dekretuaren proiektua, Faltzesko eta Azkoiengo udal mugarteak aldatzeko espedientea ebazten duena.

Irizpena: 37/2019, uztailaren 29koa

Berrikuspeneko errekurtsio berezia, Nafarroako Administrazio Auzitegiaren 2019ko martxoaren 13ko 357. Ebazpenaren aurkakoa.

Irizpena: 38/2019, uztailaren 29koa

Foru Dekretuaren proiektua, arautzen duena zer prozedura erabili behar den Nafarroako Gobernuak baimena eman dezan Foru Komunitateko enpresa-entitate publikoek, fundazio publikoek eta sozietate publikoek abalak eta maileguak emateko.

Irizpena: 39/2019, uztailaren 29koa

Ofiziosko berrikuspena, hiri lurren balioaren igoeraren gaineko zergaren likidazioarena.

Irizpena: 40/2019, uztailaren 29koa

Nafarroako Foru Administrazioaren ondare erantzukizunaren erreklamacioa, osasun laguntzagatik.

Irizpena: 41/2019, irailaren 23koa

Nafarroako Foru Administrazioaren ondare-erantzukizuna, osasun zerbitzuen funtzionamenduaren ondorioz.

Irizpena: 42/2019, urriaren 2koa

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gobernu Kontseiluaren erabakiaren ofiziozko berrikuspena.

Irizpena: 43/2019, urriaren 2koa

Foru Dekreturako Proiektua, Babes Bereziko Araubidean dauden Espezieen Nafarroako Zerrenda ezartzen duena, Mehatxatutako Landare Espezieen Nafarroako Katalogo berria ezartzen duena eta Mehatxatutako Fauna Espezieen Nafarroako Katalogoa eguneratzen duena.

Irizpena: 44/2019, urriaren 22koa

Kalte-ordainen eskaera, osasun zerbitzuen funtzionamenduak eragindako kalte eta galerengatik.

Irizpena: 45/2019, azaroaren 4koa

Ofiziozko berrikuspena, Peralta-Martzellako lurzatieen berrantolamendurako erabakiari eta oinarriari buruzkoa (Baiunga ubidea)

Irizpena: 46/2019, azaroaren 25ekoa

Aldaketa, Berako hirigunean fibrozementuaren hornidura egiteko arteriak ordezkatzeko obren kontratuan.

Irizpena: 47/2019, azaroaren 25ekoa

Ofiziozko berrikuspena, Iruñeko Udaleko Alkatetzaren 2015eko abuztuaren 13ko ebazpenarena. Ebazpen horrek ezetsi zuen ondare-erantzukizunaren erreklamazioari buruz 2015eko maiatzaren 29an emandako ebazpenaren aurka paratutako berraztertze errekurtsoa.

Irizpena: 48/2019, azaroaren 25ekoa

Ofiziozko berrikuspena, antzezlan bat antzezteko kontratuarena.

Irizpena: 49/2019, abenduaren 16koa

Foru Dekretuaren Proiektua, urriaren 26ko 94/2016 Foru Dekretua aldatzeko. Haren bidez ezarri zen Nafarroako gizarteratze eta laneratze enpresen kalifikazioaren, erregistroaren eta laguntzen araubidea.

Irizpena: 50/2019, abenduaren 16koa

Erruzko suntsiarazpena, obra kontratu honena: "Ureztapenaren barne banaketarako sareak, Artaxoako, Larragako, Murillo el Frutoko eta Uxueko herrilurretako lurzatietan".

Irizpena: 51/2019, abenduaren 16koa

Ofiziozko berrikuspena, Murillo el Frutoko Udalak Murillo el Frutoko Ureztatzaileen Elkartearekin 1991n, 1994an eta 1998an hitzarturiko hitzarmenena.

Irizpena: 52/2019, abenduaren 30ekoa

Obra kontratuaren suntsiarazpena erruzko ez-betetzeagatik, Cabanillas-ko Udalak eskatua.

Irizpena: 53/2019, abenduaren 30ekoa

Erruzko suntsiarazpena, Ardoi Iparrean kirolerako eta bizi sozialerako eraikinaren obra kontratuarena.

Irizpena: 54/2019, abenduaren 30ekoa

Erabateko deuseztasuna deklaratzeko errekurtsua, ondare-eskualdaketan zergaren behin behineko likidazioaren gainean.

